

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU-N ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA:
KARROZARIA**

- **1.2 FASEKO PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOAREN BEHIN BETIKO EMAITZA**
- **3. FASEKO ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALERAKO DEIALDIA**
- **4. FASEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIORAKO DEIALDIA**

Lehena.- Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak aztertu eta gero, jakitera ematen da Karrozarien lan poltza osatzeko hautaketa prozesuko **1.2 Faseko Proba Profesional Praktikoaren behin betiko emaitza** (1. ERANSKINA).

Interesdunekin harremanetan jartzeko onarpen eskaeran emandako posta elektronikoko helbidea erabiliko da.

Bigarrena.- **Dei egiten zaie GAI diren hautagaiei Hautaketa Prozesuko 3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko. Fase hori abenduaren 12an egingo da OTEIC TALDEAREN bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua – Donostia-San Sebastián). Begiratu 2. ERANSKINEAN bakoitzari egokitu zaion txanda.**

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horretaz aparte banakako edota taldeko beste proba batzuk ere bai, ikusteko ea haien ezaugarriak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen.

Fase honetan 9 puntu lortu beharko dute gutxienez, guztira ebaluatutako 15 puntutik.

Hirugarrena.- **4. FASEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIORAKO DEIALDIA:**

- **Euskararen ezaqutza:** Onarpen Eskaeraren Inprimakian Euskara proba egin nahi zutela adierazi zutenei dei egiten zaie, abenduaren 13an, 11:00etan, URUMEA EUSKALTEGIAN (Donostia-San Sebastiango Prim kalea, 9 –atzealdetik sartzen da–) egingo den euskara proba egiteko (proba idatzia, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera).
- **Esperientzia Profesionala** (Gizarte Segurantzak egindako justifikanteekin edota enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko da): **Hautagairen batek hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu zuen esperientzia profesional egiaztatua handitu nahiko balu, 3. Fasea egitera deituta dagoen egunean aurkeztu beharko du horren gaineko dokumentazio berria.**

Hautagaiek NAN, pasaporte edo gidabaimenaren originala erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat aurkeztu ezean, ezin izango dituzte probak egin.

Hautaketa Prozesuan zehar, Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela eta, hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkeztu baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

Izpta. Hautaketa Batzordea
Donostia, 2017ko abenduaren 5a

1. ERANSKINA:

1.2 Faseko Proba Profesional Praktikoaren behin betiko emaitza

NAN	1.2. FASEA PUNTUAZIOA (gutxienez 21/30 puntu)
15990679K	27,00
44162494X	25,50
72511889L	24,00

2. ERANSKINA:

3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko deialdia.
Fase hori OTEIC TALDEAREN bulegoetan egingo da (Zuatzu
Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua – 20018 Donostia).

NAN	EGUNA	ORDUA
15990679K 44162494X 72511889L	2017/12/12	9:00 h 10:00 h 11:00 h